

BILBAO – SANTANDER TAN CERCA 2020 BOLSA DE PROYECTOS



CONVOCATORIA

1. Objeto y fines de la Bolsa de proyectos

Los Ayuntamientos de Bilbao y Santander han alcanzado un acuerdo para estrechar lazos y buscar la colaboración a nivel cultural entre las dos ciudades, tanto a nivel institucional como entre el tejido privado.

Fruto de ese acuerdo se convoca esta Bolsa de proyectos, bajo la denominación BILBAO – SANTANDER TAN CERCA 2020 (en adelante, “Tan cerca 2020”), promovida por el Área de Cultura del Ayuntamiento de Bilbao y la Fundación Santander Creativa.

Esta Bolsa de proyectos tiene como fin principal recoger propuestas de profesionales, empresas u otro tipo de entidades del sector cultural o creativo, con sede social o actividad principal en los municipios de Santander o Bilbao, que se incorporarán a las programaciones de actividades culturales de las ciudades convocantes a lo largo del año.

Con cargo a la bolsa se seleccionarán un máximo de cuatro proyectos con un presupuesto de 10.000 € cada uno (impuestos y todo tipo de gastos o costes incluidos).

Los proyectos deberán ser novedosos y fruto del trabajo conjunto de agentes culturales de las dos ciudades.

Los proyectos se desarrollarán en cualquiera de las dos ciudades, primándose aquéllos que planteen actividades en ambas.

2. Características de la Bolsa

El presupuesto total de la Bolsa de proyectos “Tan Cerca 2020” es de 40.000 euros, aportando cada institución convocante 20.000 €.

Se seleccionarán un máximo de cuatro proyectos, siendo el presupuesto para desarrollar cada uno de 10.000 € (todos los impuestos incluidos).

Cada una de las instituciones convocantes financiará y desarrollará dos proyectos.

El órgano competente para la selección de los proyectos será una Comisión de Valoración formada por un máximo de cuatro personas y nombrado, a partes iguales, por la Fundación Santander Creativa y el Ayuntamiento de Bilbao.

3. Características de los proyectos a presentar

Los proyectos culturales que se presenten habrán de contribuir a alguno de estos objetivos:

- La creación, continuidad o enriquecimiento de un sector cultural profesional con lazos estables entre las dos ciudades.
- La generación de propuestas que enriquezcan la programación cultural de Santander y Bilbao.
- La puesta en marcha de redes de trabajo entre profesionales, empresas u otro tipo de entidades del sector cultural o creativo que desarrollen sus actividades en las dos ciudades.

Los proyectos se tendrán que desarrollar en el año 2020.

4. Quién puede presentar proyectos

Pueden presentar proyectos a la Bolsa “Tan cerca 2020” los y las profesionales inscritos e inscritas en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos y las empresas u otro tipo de entidades siempre que cumplan estas condiciones:

- Que se dediquen, con independencia de su forma jurídica, a la creación, producción, distribución y/o comercialización de bienes culturales.
- Que su actividad principal se desarrolle en las ciudades de Santander o Bilbao y la sede social o domicilio fiscal esté en estas ciudades o municipios de su entorno.
- Que, en el caso de empresas, no sean sociedades mercantiles adscritas a Entidades Locales ni Organismos Autónomos Locales ni Entidades Públicas Empresariales Locales.

Los proyectos culturales deberán ser presentados conjuntamente por dos agentes culturales, uno de Santander y otro de Bilbao.

En ningún caso se admitirán proyectos presentados por un único agente cultural.

Cada solicitante podrá presentar un único proyecto.

5. Plazo y modo de presentación de proyectos y documentación

Los proyectos se podrán presentar hasta el 8 de abril de 2020.

Los proyectos, con la documentación que se especifica en los Anexos I, II y III, se presentarán por correo electrónico en la siguiente dirección: info@santandercreativa.com

Los proyectos podrán enviarse en euskera o castellano.

Una vez presentados los proyectos, las comunicaciones y notificaciones que se deban realizar a los y las participantes se efectuarán por correo electrónico.

6. Documentación a presentar

La solicitud de incorporación a la Bolsa se formulará rellenando el modelo digital correspondiente que figura como “Anexo I” (descargable en la web www.santandercreativa.es) e irá firmada por el o la solicitante o, en su caso, el o la representante legal de la entidad.

La solicitud irá acompañada del proyecto (rellenando el “Anexo II”) y la documentación administrativa (Declaración responsable conforme al “Anexo III”).

A. El proyecto

Se cumplimentará de forma obligatoria en el modelo digital que figura en el Anexo II (descargable en la misma web), y que obliga a cumplimentar los siguientes ítems:

- Breve información de las empresas o entidades o profesionales autónomos de las dos ciudades que presentan o participarán en el proyecto (especificando cuál de ellos solicita la ayuda), que incluirá: descripción de actividad, sector en el que se integran, empleos estables que generan, misión y visión.
- Descripción del proyecto que se quiere incorporar a la Bolsa, que, para facilitar su evaluación, deberá contener, por este orden, la información correspondiente a los siguientes epígrafes:
 - a. Denominación del proyecto
 - b. Descripción
 - c. Objetivos
 - d. Público al que se dirige (descripción del tipo de público y estimación del número de personas a las que llegará el proyecto)
 - e. Lugares en los que se llevará a cabo el proyecto y acreditación, en su caso, de que se cuenta con el visto bueno de los gestores de los espacios que se proponen.
 - f. Medios materiales y técnicos necesarios para desarrollar el proyecto.
 - g. Número de profesionales que participarán directamente en el proyecto.

- h. Calendario.
- i. Presupuesto detallado y desglosado del proyecto en sus correspondientes partidas y plan de financiación alternativa/complementaria.
- j. Si hubiese patrocinios adicionales (aspecto que será valorado positivamente) deberá presentarse la documentación que lo justifique.
- k. Los o las solicitantes podrán adjuntar información complementaria si consideran que es relevante para el proyecto (dossier, fotos, vídeos etc.).

B. La documentación administrativa (Declaración responsable)

Acompañando a la solicitud y el proyecto, se cumplimentará la Declaración responsable que figura en el Anexo III (descargable en la misma web).

7. Admisión de solicitudes y subsanación de deficiencias

La Comisión de Valoración de los proyectos verificará que las solicitudes cumplen los requisitos e indicaciones recogidas en la convocatoria y, en caso de detectar documentación defectuosa o incompleta, requerirá del solicitante la subsanación de la misma, en un plazo de 10 días naturales.

Si en ese plazo no se subsanan las deficiencias, se desestimará la solicitud sin más trámite.

8. Criterios de valoración que regirán la Bolsa de proyectos

Para la selección de los cuatro proyectos para 2020, la Comisión de Valoración evaluará los siguientes indicadores:

- Calidad, interés, viabilidad e innovación del proyecto (40%). Se valorará que los proyectos incluyan el visto bueno de los gestores de los espacios que se proponen.
- Generación de redes de trabajo entre profesionales de las dos ciudades (20%).
- Que el proyecto se desarrolle en las dos ciudades (20%).
- Número de ciudadanos y ciudadanas a los que se llegará con las actividades propuestas (10%).
- Aportación de financiación complementaria (10%).

En todo caso, en la valoración se tendrá en cuenta la aportación del proyecto a los fines de la convocatoria que se señalan en la cláusula primera de la convocatoria.

9. Selección de proyectos y notificación

La Comisión de Valoración emitirá un informe que concrete el resultado de la evaluación realizada, aplicando los criterios que se señalan en el artículo anterior y proponiendo los proyectos a seleccionar.

Ese informe se publicará en la página web de las dos entidades convocantes.

La Comisión de Valoración podrá proponer una relación nominal de suplentes en previsión de que algún proyecto seleccionado no se realizara, bien por renuncia, bien por cualquier otro motivo.

El plazo máximo para que la Comisión de Valoración realice la propuesta de selección de proyectos será de 2 meses, a contar desde la finalización del plazo de presentación de las solicitudes.

En todo caso, la relación de proyectos seleccionados se notificará personalmente a los y las solicitantes a través de correo electrónico.

Las instituciones convocantes podrán declarar desierta la convocatoria de forma parcial o total.

10. Determinación final de los proyectos y su formalización

Las instituciones convocantes determinarán qué dos proyectos financiará cada una de ellas.

Dado que los proyectos se seleccionan para formar parte de la programación cultural de las instituciones convocantes, estas podrán pedir en cualquier momento a las empresas que aclaren, mejoren o alteren los proyectos seleccionados como condición necesaria para su formalización. A estos efectos cada institución contactará con los o las promotores de sus proyectos respectivos para concretar todos los puntos necesarios antes de proceder a la firma de los acuerdos. En estos contactos y en los acuerdos que se firmen se incluirán:

- Las características del proyecto.
- El presupuesto final del proyecto, es decir, a qué conceptos presupuestarios y en qué cantidades se destinarán los 10.000 €.
- Las condiciones de abono, señalándose expresamente lo que se abonará a cada empresa participante.
- La ubicación y fechas definitivas del proyecto.
- La comunicación y publicidad de las actividades proyectadas.

Una vez concretados los puntos anteriores, por los órganos competentes de cada institución se procederá a firmar los acuerdos.

A partir de la firma, las empresas seleccionadas deberán cumplir con los requisitos legales a los que se sometan los diferentes acuerdos.

Sin perjuicio de que las empresas seleccionadas firmen un acuerdo con una única institución convocante, deberán facilitar al resto de las instituciones convocantes información detallada de las actividades, antes y después de su realización, con independencia de la ciudad donde se lleven a cabo.

BILBO – SANTANDER "BERTATIK BERTARA" 2020 PROIEKTUEN POLTSA



DEIALDIA

1. Proiektuen poltsaren xedea

Bilboko eta Santanderko Udalek hitzarmen bat egin dute, harremanak sendotzeko eta, bi hirietan, elkarlanean jarduteko kulturaren arloan, dela erakundeen artean, dela sare pribatuko eragileen artean.

Akordio horren emaitza gisa, proiektuen poltsa honetarako deialdia egiten da, BILBO – SANTANDER BERTATIK BERTARA, 2020 goiburuarekin (aurrerantzean, "Bertatik bertara, 2020"), Bilboko Udalaren Kultura Sailak eta Fundación Santander Creativa fundazioak sustatuta.

Proiektuen poltsa honen xede nagusia da profesionalen, enpresen edo kultur edo sormen sektoreko beste entitate mota batzuen proposamenak jasotzea, betiere egoitza soziala edo jarduera nagusia Santanderren edo Bilbon badute; hala, deialdia egiten duten hirien kultur jardueren programazioetan jasoko lirateke proiektu horiek, urtean zehar.

Poltsa horren kontura, lau proiektu hautatuko dira guztira, bakoitzarentzat 10.000 euroko aurrekontua izango delarik (zergak eta era guztietako gastuak edo kostuak barne).

Proiektuak berritzaileak izan beharko dira, eta bi hirietako kultur eragileen elkarlanaren emaitza.

Proiektuak bi hiri horietako edozeinetan garatuko dira, eta bietarako jarduerak proposatzen dituztenak lehenetsiko dira.

2. Poltsaren ezaugarriak

"Bertatik bertara, 2020" proiektu-poltsaren aurrekontua, guztira, 40.000 euro da; deialdia egiten duten bi erakundeetako bakoitzak 20.000na euro ezartzen dute.

Lau proiektu hautatuko dira guztira, eta proiektu bakoitza garatzeko aurrekontua 10.000 euro izango da (zerga guztiak barne).

Deialdia egiten duten erakundeetako bakoitzak bina proiektu finantzatu eta garatuko ditu.

Proiektuak hautatzeko eskumena duen organoa Balorazio Batzordea da: lau pertsonak osatuko dute, eta Fundación Santander Creativa fundazioak eta Bilboko Udalak izendatuko dituzte, erdi bana.

3. Proiektuen ezaugarriak

Kultur proiektuek helburu hauetako batean lagundu beharko dute:

- Kultur sektore profesional bat, bi hirien artean harreman egonkorrak izango dituen, sortu, jarraipena eman edo aberastu beharko dute.
- Santanderko eta Bilboko kultur programazioa aberastuko duten proposamenak sortu beharko dituzte.
- Lan sareak jarri behar dituzte abian, kulturaren edo sormenaren arloko profesional, enpresa edo bestelako entitate beren jarduera bi hirietan garatzen dituztenen artean.

Proiektuak 2020an garatu beharko dira.

4. Nork aurkez ditzakeen proiektuak

“Bertatik bertara, 2020” proiektu-poltsara proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte langile autonomoen araubide berezian izena emandako profesionalek, eta, orobat, enpresek eta beste entitate-mota batzuek, baldin eta:

- Kultur ondasunak sortzen, produzitzen, banatzen eta/edo merkaturatzen jarduten badira, edozein dela ere profesional, enpresa edo entitate horien forma juridikoa.
- Beren jarduera Santanderren edo Bilbon garatzen bada, eta egoitza soziala edo egoitza fiskala hiri horietan edo inguruko udalerrietan badaukate.
- Enpresen kasuan, ez badira ez toki entitateei atxikitako merkataritzako sozietateak, ez tokiko organismo autonomoak edo tokiko enpresa-entitate publikoak.

Kultur proiektuak bi kultur eragilek aurkeztu beharko dituzte, elkarrekin; eragile batek Santanderrekoa izan behar du, eta besteak Bilbokoak.

Ez dira onartuko, inolaz ere, kultur eragile bakar batek aurkeztutako proiektuak.

Eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahalko du.

5. Proiektuak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta modua

Proiektuak 2020ko apirilaren 8ra arte aurkeztu ahalko dira.

Proiektuak, I., II. eta III. Eranskinetan aipatzen den dokumentazioarekin batera, posta elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, honako helbide honetan: info@santandercreativa.com

Proiektuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egon ahalko dira.

Behin aurkeztutakoan, parte hartzaileei egin beharreko komunikazioak eta jakinarazpenak posta elektronikoz egingo dira.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Proiektua aurkeztuko da, beraz, Proiektuen Poltsan onartua izateko eskabidearen eredu digitala betez; "I. Eranskin" gisa ageri da eredu hori, eta web orri honetatik jaits daiteke: www.santandercreativa.es. Eskatzaileak sinatuta egon beharko da eredu, edo, hala balegokio, entitatearen legezko ordezkariak.

Eskabidearekin batera, proiektua ("II. Eranskina" bete beharko da horretarako) eta administrazio-dokumentazioa ("III. Eranskinaren" arabera erantzukizunpeko adierazpena) aurkeztu beharko dira.

A. Proiektua

II. Eranskinean ageri den eredu digitalaren arabera bete beharko da, nahitaez (web-orritik bertatik jaitsi ahal da); eredu horrek item hauek betetzera behartzen du:

- Proiektua aurkezten duten edo proiektuan parte hartuko duten bi hirietako enpresen edo entitateen edo profesional autonomoen gaineko informazio laburra (zehaztu beharko da bietako zeinek egiten duen eskabidea), honako informazio hau emanez: jardueraren deskribapena, zein sektoretan integratuta dauden, sorrarazten dituzten enplegu egonkorak, zein duten misioa, eta zein duten ikuspena.
- Proiektuen poltsan sartu nahi den proiektuaren deskribapena: proiektua ebaluatuko bada, informazio hau eman behar du, hurrenkera honetan:
 - I. Proiektuaren izena
 - m. Deskribapena
 - n. Helburuak
 - o. Norentzako den (publiko mota, eta gutxi gorabehera zenbat pertsonarengana iritsiko den)
 - p. Proiektua non gauzatuko den; orobat, hala balegokio, proposatzen diren espazioak kudeatzen dituztenen oniritzia duelako egiaztapena.

- q. Proiektua garatzeko bitarteko materialak eta teknikoak.
- r. Proiektuan zuzenean parte hartuko duten profesionalen kopurua.
- s. Egutegia.
- t. Proiektuaren aurrekontu xehatua, atalen arabera, eta finantzazio alternatibo edo osagarriko plana.
- u. Beste babesle batzuk egonez gero (modu positiboan baloratuko da hori), horri dagozkion egiaztagiriak.
- v. Eskatzaileek aukeran izango dute bestelako informazio osagarria aurkeztea, proiekturako esanguratsua dela uste badute (dosierrak, argazkiak, bideoa eta abar).

B. Administrazio agiriak (erantzukizunpeko adierazpena)

Eskabidearekin eta proiektuarekin batera, erantzukizunpeko adierazpena beteko da (III. Eranskinean dator jasota; web orri beretik jaitsi ahal da).

7. Eskabideak onartzea. Hutsak zuzentzea.

Balorazio Batzordeak egiaztatuko du eskabideek betetzen dituzten edo ez deialdian ezarritako baldintzak eta xehetasunak, eta dokumentazioan akatsik edo hutsunerik aurkituz gero, zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari; 10 egun naturaleko epea izango du horretarako.

Epe horretan akatsak zuzendu ezean, eskaera beste barik ezetsiko da.

8. Proiektuen Poltsa arautuko duten balorazio-irizpideak

2020ko lau proiektuak hautatzeko, Balorazio Batzordeak honako adierazle hauek baloratuko ditu:

- Proiektuaren kalitatea, interesa, bideragarritasuna eta berrikuntza (% 40). Proiektuek baduten edo ez proposatutako lekuen kudeatzaileen oniritzia.
- Bi hirietako profesionalen artean lan-sarerik sortzea badakarren edo ez (% 20)
- Proiektua bi hirietan garatzen den edo ez (% 20)
- Proposatutako jarduerak zenbat herritarrengana iristen diren (% 10).
- Finantzazio osagarriarik baduen edo ez (% 10).

Nolanahi ere, baloratzeko orduan, kontuan hartuko da ea proiektuak ekarpenik egiten ote dien deialdiaren helburuei (deialdiaren lehen klausulan datoz zehaztuta).

9. Proiektuak hautatzea eta erabakia jakinaraztea

Balorazio Batzordeak txosten bat emango du ebaluazioaren emaitzarekin (aurreko artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta erdiesten da) eta hautatu beharreko proiektuak proposatuz.

Txosten hori deialdia egiten duten bi entitateen web orrian argitaratuko da.

Balorazio Batzordeak zerrenda bat proposatuko du, ordezkoen izenekin, menturaz hautatutako proiekturen bat ez bada gauzatzen, dela uko egin diotelako edo dela beste edozein kausarengatik.

Balorazio batzordeak 2 hilabete izango ditu proiektua hautatzeko proposamena egiteko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Nolanahi ere, hautatutako proiektuen zerrenda posta elektronikoz jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari.

Deialdia egiten duten erakundeek beren esku dute ezein proiektu ez hautatzea, edo proiektu bat partez bakarrik hautatzea.

10. Proiektuak behin betiko determinatzea eta formalizatzea

Deialdia egiten duten erakundeek erabakiko dute zein bi proiektu finantzatuko duen bakoitzak.

Nola eta proiektuak deialdia egiten duten erakundeen kultur programazioan sartzeko hautatzen diren, erakunde horiek beren esku izango dute edozein unetan galdegitea enpresei argitu, hobetu edo alda ditzatela proiektu hautatuak, formalizatzeko baldintza ezinbesteko moduan. Erakunde bakoitzak, horretarako, zeinek bere proiektuaren sustatzailearengana joko dute, zehaztu beharreko puntu guztiak zehazteko, hitzarmenak sinatu aurretik. Harreman horietan eta sinatuko diren hitzarmenetan, honako hauek jaso beharko dira:

- Proiektuaren ezaugarriak.
- Proiektuaren azken aurrekontua, hau da, 10.000 euroak aurrekontuko zein kontzeptutarako diren eta nola banatuko diren.
- Nola ordainduko den dirua; berariaz aipatuko da zenbat ordainduko zaion parte hartzen duen enpresa bakoitzari.
- Noiz eta non gauzatuko den proiektua (behin betiko datak eta kokalekua).
- Proiektatutako jardueren komunikazioa eta publizitatea.

Behin aurreko puntu horiek zehaztutakoan, erakunde bakoitzean eskumena duten organoek hitzarmenak sinatuko dituzte.

Behin sinatutakoan, hautatutako enpresek hitzarmen bakoitzaren legezko betebeharrak bete beharko dituzte.

Hautatutako enpresek, deialdia egiten duten erakundeetako bakar batekin sinatu arren hitzarmena, jardueren gaineko xehetasunak eman beharko dizkiete gainerako erakundeei, jarduerak gauzatu aurretik nahiz ostetik, eta hiri batean gauzatu nahiz bestean gauzatu.